# Bestelako Xedapenak

## HERRIZAINGO SAILA

### 3139

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 17 koa, Herrizaingoko sailburuarena, trafikoko arau-hausteak izapidetzeko zentro automatizatua martxan jartzeko dena.

Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 11. artikuluan xedatzen dira Trafiko Zuzendaritzari dagozkion eginkizunak, trafikoa eta bide-segurtasuneko araudian aurreikusi diren baimentzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko ahalmenak baliatuz. Dekretu hori martxoaren 30eko 96/2010 Dekretuaren eta azaroaren 23ko 303/2010 Dekretuaren bidez zati batean aldatu zen.

Dekretu horren 11.2.a) artikuluaren arabera, Trafiko Zuzendaritzari dagokio trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko arauen eta xedapen osagarrien aurkako lege-urratzeagatik hasitako zehapen-espedienteen izapideak egitea eta ebaztea. Agindu horren arabera, ahalmen hori Trafikoko Lurralde Bulegoei dagozkien organoena eta Salaketak Izapidetzeko Zentro Automatizatuko arduradunarena da, bakoitzak duen eskumenaren eremuan.

Abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenak Euskal Autonomia Erkidegoko hiriarteko trafikoa kudeatzeko sistema arautzen du, eta, orobat, Trafikoa Kudeatzeko Euskadiko Zentroa sortzen duen maiatzaren 22ko 87/2001 Dekretua aldatu zuen. Zentro horrek eskumen hauek ditu: batetik, ibilgailua identifikatzea ahalbidetzen duten irudiak bildu eta erreproduzitzeko bitartekoen bidez, Trafikoa Kudeatzeko Zentroak zuzenean atzemandako abiadura-mugari dagozkion arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak zehatzea, eta bestetik, arau-hauste horien gidari erantzulea egiazki identifikatzeko obligazioa ez betetzea zehatzea.

Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala aldatzen duen azaroaren 23ko 303/2010 Dekretuak aipatu zerbitzuaren izena aldatu du, eta orain «Trafikoko Arau-hausteak Izapidetzeko Zentro Automatizatua» izena du.

Abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren azken xedapenetako laugarrenaren arabera, Trafikoko Arau-hausteak Izapidetzeko Zentro Automatizatuak bere eginkizunak Herrizaingoko sailburuak agindua eman

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### 3139

ORDEN de 17 de mayo de 2011, del Consejero de Interior, por la que se dispone la puesta en funcionamiento del centro automatizado de tramitación de infracciones de tráfico.

El Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, modificado parcialmente por el Decreto 96/2010, de 30 de marzo, y el Decreto 303/2010, de 23 de noviembre, establece en su artículo 11 las funciones que corresponden a la Dirección de Tráfico en el ejercicio de las potestades de autorización, inspección y sanción previstas en la normativa sobre tráfico y seguridad vial.

El artículo 11.2.a) del citado Decreto atribuye a la Dirección de Tráfico la instrucción y resolución de los expedientes sancionadores que se incoen por infracciones cometidas contra la normativa de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, y disposiciones complementarias. Tal facultad se ejerce, conforme a dicho precepto, por los órganos correspondientes de las Oficinas Territoriales de Tráfico y por la persona responsable del Servicio Tramitación de Denuncias Automatizadas en sus respectivos ámbitos competenciales.

La Disposición Final Tercera del citado Decreto 471/2009, de 28 de agosto, modificaba el Decreto 87/2001, de 22 de mayo, por el que se Regula el Sistema de Gestión del Tráfico Interurbano en la Comunidad Autónoma de Euskadi, para crear el citado Servicio de Tramitación de Denuncias Automatizadas, al que se atribuye la competencia para sancionar las infracciones leves, graves y muy graves por incumplimiento de las limitaciones de velocidad detectadas directamente por el Centro de Gestión de Tráfico de Euskadi a través de los medios de captación y reproducción de imágenes que permitan la identificación del vehículo, y las infracciones por incumplimiento de la obligación de identificar verazmente al conductor responsable de las infracciones antes aludidas.

El Decreto 303/2010, de 23 de noviembre, de modificación de la estructura orgánica y funcional del Departamento de interior, ha venido a modificar la denominación del Servicio referido, el cual pasa a denominarse «Centro Automatizado de Tramitación de Infracciones de Tráfico».

La asunción de sus funciones por el Centro Automatizado de Tramitación de Infracciones de Tráfico quedaba diferida en la Disposición Final Cuarta del Decreto 471/2009, de 28 de agosto, a una Orden del

eta gero hartuko ditu bere gain, Zerbitzuak benetan gauzatzeko behar dituen baliabide eta bitartekoak izan eta gero. Ordura arte, eskumen hori Trafikoko Lurralde Bulegoetako buruei dagokie.

Ondorioz, zentro horrek bere eginkizunak burutzeko behar dituen bitarteko eta baliabideez hornitzeko prozesua amaituta, benetan martxan jartzeari ekin behar zaio.

Horregatik, abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren azken xedapenetako laugarrenean eta 4.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta dagozkidan ahalmenez baliatuaz,

XEDATU DUT:

***Lehenengoa***.– Trafikoko Arau-hausteak Izapidetzeko Zentro Automatizatua benetan martxan jartzea 2011ko ekainaren 16etik aurrera, indarrean den legedi juridikoak ematen dizkion eginkizunekin.

***Bigarrena***.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 17a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

Consejero de Interior, una vez se dispusiera efectivamente de los medios y recursos necesarios. Hasta entonces tal competencia corresponde a los Jefes de las Oficinas Territoriales de la Dirección de Tráfico.

Por consiguiente, habiendo culminado el proceso de dotación al referido Centro de los medios y recursos precisos para el ejercicio de sus funciones, procede su efectiva puesta en funcionamiento.

Por ello, de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Final Cuarta y el artículo 4.1 del Decreto 471/2009, de 28 de agosto, y en el ejercicio de las facultades que me corresponden,

DISPONGO:

***Primero***.– La efectiva puesta en funcionamiento del Centro Automatizado de Tramitación de Infracciones de Tráfico con las funciones que le atribuye el ordenamiento jurídico vigente, a partir del día 16 de junio de 2011.

***Segundo***.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 2011.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.